

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BURGELUKO UDALA

Zergak eta tasak borondatezko aldian biltzea

Nik, Natividad López de Munain Alzolak, Burgeluko Udaleko alkate-lehendakariak,

Jakinarazten dut: irailaren 15etik aurrera ordaindu ahal izango direla borondatezko aldian honako tributu hauen 2025eko ordainagiriak:

— Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga.

— Zaborrak eta hiri hondakin solidoak biltzeko zerbitzu publikoagatik ordaindu beharreko tasa.

— Jarduera ekonomikoen gaineko zerga

Ordaintzeko aldiak:

A) Borondatezko aldia: 2025eko irailaren 15etik azaroaren 15era.

B) Premiamendu aldia: azaroaren 16tik aurrera. Egun horretatik aurrera premiamenduko bide administratiboari emango zaio hasiera, dagokion erreklamo aplikatuta, indarrean den Dirubilletako Arautegi Orokorrak xedatzen duenaren arabera.

Ordainlekuak:

A) Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko ekitaldietatik helbideratuta daukatenek ez dute beste izapiderik egin behar, baldin eta emandako banku helbideratzearen kontua mantentzen badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa borondatez helbideratuta ez dutenek borondatezko epean bakarrik egin ahal izango dute ordainketa, hau da, 2025eko irailaren 15etik azaroaren 15era, udal honek Kutxabank erakundearen Dulantziko bulegoan (Dulantzi kalea 11) irekitako kontuan.

Zergadun guztiei jakinarazten zaie banku helbideratzeen altak edo aldaketak eta jakinarazpenetarako helbide aldaketak Burgeluko Udalaren bulegoetan izapidetu behar direla.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Burgelu, 2025eko irailaren 3a

Alkate-lehendakaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA